



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Marcelino Bazterrica Alchu
Mikel Gereka Zelaia
María Milagros Erreguerena Vera
Carmelo Ayoroa Hualde

2013ko azaroaren 7an, 19:30etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 Bilkurako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu dira aktak.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. J.I.A.E.k lizentzia eskatu zuen 2 poligonoko 243 partzela zeharkatzen duen erreka garbitzeko. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki dute obrak egiteko lizentzia ematea A. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 200 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 6 euro.

2. J.M.M.E.k lizentzia eskatu zuen *Kapenea* etxeko 2. solairuko komuna eraberritzeko. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki dute obrak egiteko lizentzia ematea M. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen; aurrekontua idatzia edo faktura aurkeztu beharko du Udaletxean, zerga hori likidatu ahal izateko.

3. M.D.M.E.k lizentzia eskatu zuen, familiabakarrako etxebizitza eraikitzeke Latsagako A.A. 5 unitatean. J.O.L. arkitektoak egindako proiektua aurkeztu zuten eskaerarekin batera, 2013ko maiatzaren 17an bisatua. Proiektuak eranskin bat dauka, 2013ko irailaren 27an bisatua. Aldekoa izan da Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Zerbitzuak ematen duen bizigarritasun aurretiko txostena. Aipatutakoak ikusirik eta arkitekto aholkularien txostena irakurri ondoren, aho batez erabaki dute obrak egiteko lizentzia ematea M. andreari, J.O. arkitektoak egindako proiektuaren arabera. Baldintza hauek bete beharko ditute sustatzaileak:

- María Urmeneta eta Patxi Chocarro arkitektoen txostenak jartzen dituen puntuak bete.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu obrak hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 62.766,00 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 1.882,98 euro.
- Lagapena sinatu obrak hasi baino lehen.
- Zuinketa egin obraren hasieran Udaleko arkitekto aholkulariekin batera.
- Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispentako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituen 23/2011 Foru Dekretuko 3., 4. eta 6. artikulua bete: obra egin behar duen enpresa eraikuntza eta eraispentako hondakinen edukitzea diren eraikitzaileen erregistroan inskribatua dagoela egiaztatu edo 1.000,00 euroko fidantza edo bankuko abal bat aurkeztu.

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

3. HERRIKO OSTATUA.

Iturengo *Herriko Ostatuko* taberna eta jatetxe zerbitzua eta, horrekin batean, Kontseilu karrikako 38an dagoen etxebizitzaren errentamendua emateko leihaketa irekira deia egin zen, hasierako prezio honekin: hilabeteko 300 euroko errenta (gehi BEZaren % 21).

Epe-barru aurkeztu zen eskaintza ireki eta aztertu du kontratazio-mahaiak gaur eguerdian. Ekintza horren akta irakurri du idazkariak.

3. kartazala ireki du idazkariak eta hau izan da emaitza: J.C.E.A.k 300 euroko errenta eskaini du hileko.

Aipatutakoa ikusirik, aho batez erabaki dute:

1. Iturengo *Herriko Ostatuko* taberna eta jatetxe zerbitzua eta, horrekin batean, Kontseilu karrikako 38an dagoen etxebizitzaren errentamendu kontratua esleitzea J.C.E.A.ri – NAN 72.668.405 C—, hileko 300,00 eurotan (gehi BEZaren % 21), 5 urterako, beste 5 urtez luzatzen ahal direnak.

2. Baldintza pleguko 8. eta 9. baldintzak bete beharko ditu adjudikatariak (behin-betiko fidantza ezarri, kontratua gauzatu eta horretarako behar diren agiriak aurkeztu), erabaki honen jakinarazpenaren biharamunetik kontatzen hasi eta hamabost eguneko epean.

3. Erabakia jakinaraztea adjudikatariari.

4. HIRIGINTZA HITZARMENA. AURTIZKO U.B. 3.

Kudeaketako hirigintza hitzarmenari buruzko agiriak aztertu dira, UB 3an utzi beharreko lurzoruko zati bat eskudiruko ordainketarekin aldatzeko. G.A.M. eta I.P.E. dira sustatzaileak. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabaki da:

1. Hirigintza hitzarmenari hasierako onespina ematea, espedientea abiarazteko baizik ez.

2. Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hogeitun egun balioduneko epean jendaurrean egoteko.

5. ZENBAIT ESKAERA.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

1. 2013ko irailaren 19ko Osoko Bilkuran erabaki zen *Aurtizko Ostatuan* taberna, hostel eta jatetxe zerbitzuaren errentamendu kontratua esleitzea U.R.G., I.A.A. eta A.A.D.ri. Esleipen-hartzaileek kooperatiba bat eratu dute (*Abarun S. Coop.*) eta errentamendu kontratua kooperatibaren izenera eskualdatzea eskatu dute. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1. *Aurtizko Ostatuan* taberna, hostel eta jatetxe zerbitzuaren errentamendu kontratuaren esleipena eskualdatzea *ABARUN S. COOP.*ari, IFK F 71 157291, kontratuko baldintza guztiak mantenduz. Kooperatibako Estatutuak aurkeztu behar dituzte Udaletxean, bazkide akziodunen zerrenda jakiteko.

2. Kontratu berria egitea kooperatibaren izenean, esleipeneko baldintza berberekin.

2. Aho batez erabaki da A.D.A. baimentzea, Udaletxeko sabaian Euskal dantzen ikastaroa emateko.

3. Aho batez erabaki da E.M.P. baimentzea, Udaletxeko sabaian Afrikako dantzen ikastaroa emateko.

4. Aurtizko bestak antolatzeko diru-laguntza eskatu zuen O.M.k. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da bestako kontuak aurkezteko eskatzea, laguntzako diru-kopurua erabaki ahal izateko.

5. “*GENERO INDARKERIAREN AURKAKO UDALAK*” kanpainari atxikimendua erakutsi dio Iturengo Udalbatzak. Azaroaren 25ean argitaratuko da adierazpen instituzionala iragarki oholetan.

6. A.M.J.k aurkeztu zuen idatzia irakurri du idazkariak. Bertan salatzen du I. jaunak egurra bat jarri zuela *Landako bidean* (porlana bota gabe utzi zen zatian) eta duela egun batzuk auto batek egurra jo eta kalteak izan zituela. Idatzian eskatzen du Udalak ordaintzea autoak izandako kalteen konponketa eta egurra toki hartatik kentzea. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1. M. andreari jakinaraztea, kalteak izan zituen pertsonak egin behar diola ordainketa-eskaria Udalari, kalteak Udalaren erantzukizunekoak izan direla uste baldin badu.

2. J.A.I.ri jakinaraztea, egurra kendu behar duela erabilera publikoa daukan tokitik.

6. MOZIOAK.

Kalitatezko osasun-laguntza berma dadin eta Nafarroako landa-eremuetako herritarrek dituzten eskubideak eta zerbitzuak arautzeko asmoz Zangozako Merindadeko Udalek abiatutako legegintzako ekimena babesteko proposamena irakurri ondoren, aho batez erabaki da:

1. Iturengo Udalaren babesa ematea legegintzako ekimenari, martxoaren 25eko 4/1985 Foru Legeak ezartzen duenaren arabera.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. Akordio honen berri ematea Pirinioetako osasun-batzarrari, Erronkariko Udalari, Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuari, Nafarroako Legebiltzarrari eta hedabideei.

3. Bertako herritarrei onartutako akordioaren berri ematea eta ekimenaren edukia ezagutarazteko behar diren bitartekoak abian jartzea.

7. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2013ko irailaren 20koa, *Herriko Ostatuko* ordutegia handitu zuena *Joaldunen Egunerako*; 2013ko urriaren 28koa, langile langabetuak kontratatze lanak eta aurrekontua onetsi zituen; 2013ko urriaren 29koa, 3 poligonoko 96 partzelan eraikitako etxebizitza lehen aldiz erabiltzeko eta okupatzeko lizentzia eman ziona G.A. eta I.P.ri; 2013ko urriaren 29koa, *Aurtizko Ostatuko* irekitzeko lizentzia eskualdatzeko baimena eman zuena; 2013ko urriaren 30koa, *Lanberriko bordaren* ondoan dagoen lursailako pareta berregiteko lizentzia eman ziona C.E.ri; 2013ko urriaren 30koa, F.J.A.ri lizentzia eman ziona, *Berroarte* parajeko bidean porlana botatzeko 70 metrotan eta 2. poligonoko 356. partzelari 7 metroko sarrera egiteko, komunala den 360. partzelaren barrena; 2013ko azaroaren 7koa, *Aurtizko Ostatuko* ordutegia handitu zuena Aurtizko bestetarako.

8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Aho batez erabaki da GR-ko ibilbidea markatzeko eta Aurtitz auzoan panela jartzeko baimena ematea Bertizko Partzuergoari.

2. Euskal Herriko Itzulian parte hartzeko, barneko hitzarmenaren proposamena bidali du Bertizko Partzuergoak. Eztabaidatu ondoren, bere adostasuna adierazi du Iturengo Udalbatzak.

3. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: mendiko lanak bukatzeko epearen luzapena amaitu baino lehen pistetan egin beharreko lanak; Kantauriko Ur-Konfederazioaren Ebazpena, 2013ko irailaren 13koa, etxebizitza eraikitze baimena eman ziona M.D.M.ri; banderaren aferan emandako epaia —Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiko 211/2013 zenbakia—; bulegoak garbitzeko langilearen hautapena.

4. Mikel Gerekak hitza hartu du eta auzoko-konpostajea bultzatzeko egingo den kanpaina azaldu du.

5. Mikel Gerekak proposatu du Hezkuntza Departamentuan bilera eskatzea eskolaren gaia aztertzeko.

6. Jagoba Manterolak aurkeztu du *Orzorrotzeko Gazteluari* buruzko txostena.

Gai Zerrendatik kanpo, presazkoa dela aitortuz, aztertu dute Udal Plan Orokorren antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketa, *Mantxolaz* parajeko auzo tradizionala ezabatzeko. Iturengo Udala da espedientearen sustatzailea. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79, 70 eta 71. artikuluekin bat etorritik, aho batez, erabaki da:



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

1. Udal Plan Orokorraren aldaketari hasierako onespena ematea.
2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan, hilabete bateko epean jendaurrean egoteko.
3. Espedientea igortzea Sustapen Departamentura, hark txostena egin dezan Nafarroako Gobernuako departamentuen eskumenetako gaiez.
4. Erabaki hau jakinaraztea *Mantxolaz* parajeko auzo tradizionalaren eremuan sarturik dauden lurren jabe guztiei.

9. HERRIAREN TXANDA.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 23:15ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.